


LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

literatura



Etxegoien 'Totelak' lan berriarekin. BORJA GUERRERO

FERMIN ETXEGOIEN IDAZLEA ETA KAZETARIA

“Nire liburuak ‘reset’ antzeko bat eragitea nahiko nuke”

Saiakera, kazetaritza eta fikzioa uztartzen dituen eleberri hibridoa argitaratu du Fermin Etxegoienek: ‘Totelak’

 OIHANA CABELLO

TOTELAK' kaleratu du Fermin Etxegoienek. Saiakeratik ere baduen liburua da, baina nobelak tesi itxura ez hartzeko fikzioa sortu du. Horrela, istorioan agertuko da euskal musikari bat kalean jotzen, Santanderren, lotsatu egiten delako hori Bilbon egiteaz. Halako batean, Ruper Ordorikaren obrarekin topo egingo du. Obra horren inguruan, euskararen inguruan eta hainbat gai- ren inguruan hausnartu du Etxegoienek.

'Totelak', eleberri hibridoa. Saiakera, fikzioa eta kazetaritza uztartzen ditu. Zer da lan hibrido bat?

Hibridoa da nolabait espektatiba faltsu edo zaputzik ez sortzeko; atzean hausnarketa gune trinkoak badaudelako, gai ezberdinen inguruan. Horregatik, kontrazalean azaltzen da larritasuneraino aztertu ditudala zenbait gai. *Martin Larralde* kantuan esaten da, eta Sarrionandiaren poematik hartutako hitz batzuk dira: perfumaturik larritasuneraino. Eta zenbait gai, agian, horraino eraman ditut. Hala nola, euskara bera, edo euskaldun garen heinean, zenbateraino ez ote garen sartuko norberaren edo bakoitzaren identifikazio nazionalari buruz diskutitzera. Musika, Ruper Ordorika bera, eta nire obsesio batzuk ere aztertu ditut, geografia kontuak, esaterako.

Nazionalitatea aipatu duzu. Gaiak nobel- lan garrantzia hartzen duela esango zenuke?

Bai, baina hizkuntzaren esperientziari lotzen zaio, batez ere. Zenbait kontzepturekin jolasten dut. Adibidez, esaten dugunean egungo euskaldunak euskaldun kontzienteak gabela, pentsa dezakezu agian garai batekoak ez zirela euskaldun kontzienteak, inkontzienteak zirelako. Zer da hori?

Ba, nolabait esateko, konturatu gabe euskaraz bizi eta euskaraz pentsatzen duena da inkontzientea. Gu, gehienok bizi gara inkontziente linguistiko, kolektibo erdaldun baten arabera. Normala den bezala. Jasotzen ditugun 'input' gehien-gehienak ez ditugulako euskaraz jasotzen, erdaraz baizik. Horren inguruko hausnarketak badaude liburuan, eta hausnarketa horiek eramaten ditut toteltasunaren kontzeptura. Mugatzaile den errealtate bat.

Eta 'Totelak' du izenburu liburuak.

Bai. Esandakoari lotuta dagoelako, eta liburua idatzi dut talaia moduko batetik. Ez dut esan nahi tronu bate-

rik, baina bai orain arte izandako esperientziaren kronika egiten ari naizela. Orain hamar urte *Autokarabana* aurkeztu genuenean kronika garaikidea zela esango genuen, seguruenik. Orain sentazioa daukat gertatutakoaren kronika bat izan zela. Zer garen eta noraino ailegatu garen edo ez garen ailegatu... Baina lan horretan begirada ez zen bortitza. Kontrakoa, liburuan esaten nuena da nekez ailega gintezkeela beste toki batera, munduak hartu duen norabidea ez delako izan gurea bezalako hizkuntza gutxitu baten aldekoa. 'Input' horiengatik, eta oihartzun hori erdalduna izanagatik, normala da gertatzen zaiguna.

Beraz, gaur egun, hizkuntzarekiko bederen, inkontzientea izatea hobe?

Paradoxekin jolasean ari naiz. Kontziente izan behar dugu, baina horren baitan ez ote dagoen paradoxa moduko bat, euskaldun inkontzientea izatea. Jolas modura ere erabiltzen dut, nire lana ez delako tesi bat. Eleberria da eta pertsonaiak arituko dira hizketan kontzeptu horien inguruan.

Liburua galdera batekin hasten da, eta istorioan transzendentzia handia izango du. Zein da?

“*Espainolak?*” Atzerrian norbaitek gure matrikulari erreparatu eta hori da galdera, eta mundu oso bat zabaltzen da. Neurri batean naziotasunari lotzen zaio,

baina nik modu existenzial batean aztertu dut horrek dakarrena. Galdera horri erantzuten zaio baina hizkuntza esperientziatik; ez horrenbeste independentziaren ikuspuntutik, nahiz eta badagoen horren inguruko hausnarketaren bat edo beste.

Galdera horrek protagonistei mugak eta kontraesanak sortzea fikzioa ala errealtatea da?

Uste dut oso errealista dela. Autofikzioa badago, baina fantasiarik ez alde horretatik. Autofikzioak zer du gehiago, errealtatetik edo asmatutakotik? Ba eremu anbiguo horretan mugitzen da nobela.

“

Lan hibridoa da espektatiba faltsurik ez sortzeko, atzean hausnarketa gune trinkoak daudelako”

Ex da eleberria eta saiakera uztartuta idazten duzun lehenengo lana. Nondik dator behar hori?

Euskaldunak garelako. Badira euskalduntasunari buruzko tesia egin nahi izatetik libre idatzita daudenak, eta nik ere nahi nuke horrelakorik gertatzen ez den fikzio bat idatzi, besamoztasun honetatik sortua ez dena. Gure hizkuntza esperientzia inkontzientea ez den heinean, euskalduntasuna modu parzial batean bizi dugu. Horrek ia-ia eramangaitz bilakatzen gaitu kanporako, soziolinguistikoki osoturik dauden erremuetarako. Gure nobelen itzulpena egitean ere, nekez pizten dute kanpokoen interesa.

Eta zure lanean, zerk engalatu du gehiago irakurlea, kontakizunak ala saiakerak?

Ideala litzateke batak zein besteak balitz. Bien artean sortutako hibridotasun hori bilakatzea bide ez-ohikoa bezain erakargarria.

Ex-ohiko bidaia egiten duen liburu da, espazioan eta denboran. Zergatik?

Unamuno bezalako pertsonaiak hartu eta bigarren aukera eman diedalako. Unamuno izan zelako “Espainiako lehen buru halaber euskalduna”, bere hitzetan. Baten batek esango du rebisionista dela, eta izan daiteke. Bestalde, aurrera begira jarri eta teknologiak beste mundu batera eramango ote gaituen hori ere jaso dut; hau da, hizkuntzaren presentziaren beharrezkotasun publiko hori ere eraldatu ote den.

Liburua irakurrita uste duzu kontzientziak piztuko direla?

Handinahia litzateke hori esatea, baina nahiko nuke ‘reset’ antzeko bat eragin.